

## **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESPETXEEN** **EGOERA ETA AZTERKETA**

### **Aurkezpena**

Gure espetxe-sistema delitugintza ugaltzeko dagoen biderik garestiena da. Honelako adierazpen bat norbaitek neurritz gainekotzat jotzen badu, argitu beharra dut bere atzean ez dagoela, inolaz ere, espetxeen abolizioa proposatzen duen diskurtso erradikalik: Kataluniako Generalitateko Justizia Sailburuak esana da, orain bi aste esan ere, bertako Espetxeetako Araudi berria aurkezterakoan. Oso nabariak eta larriak izan behar dute, beraz, sistemaren hutsak, horren kudeatzaile garrantzitsuenetako batek horren afirmazio gogorra egiteko.

Egia esanda, esparru horrekin harremanik dugun guztiok aspalditik gaude ohituta horrelakoak entzuten. Legeak ezartzen dituen printzipioak eta espetxeetako errealitatearen arteko aldea salatu ohi da, baita alternatibak proposatu ere zigorraren erabilgarritasunari begira, hala nola presoek eskubideen izenean. Arartekoaren Erakundeak berak horrelaxe egiten du urtero-urtero, Parlamentuaren aurrean aurkezten dituen txostenetan. Hortaz esan liteke horrelako azterketak eta salaketak, mahaigaineratzen dituzten datuengatik ezezik, beste arrazoi batengatik ere gertatzen direla esanguratsu: urteak igaro ahala, beren hartan dirautelako. Alegia, sistemaren maila guztietan dagoen gogo oneko jendeak egiten duen lan guztia gora-behera, behin eta berriro agertzen zaizkigu arazo eta gabezi berberak.

Gure erakundearen eskarmentuan ederto igertzen da esaten nabilena, aurten betetzen baitira hamar urte Arartekoak gure espetxeen egoeraren inguruan txosten berezia argitara eman zuenetik. Bada, alderatu besterik ez dago ikerketa

haren datuak gure azkenengo txostenari dagozkionekin. 2005.urteari dagokion txostenak, zeina Legebiltzarrari aurkeztu baitzizaion, hiru espetxeetara egindako bisitaldietatik, bai eta presoekin lan egiten duten elkarteekin izandako bileretatik ere ondorioztatzen den informazioa eta balorazioa jasotzen ditu.

Horrexegatik, datuok berehala aurkeztuko badizkizuet ere, horretarako deitu baitzait hona, zilegi bekit ariketa honen arrisku batez ohartaraztea: azken batean, horrenbeste bider gauza berak entzunez gero, baliteke egoera tamalgarri hau konponezina dela pentsatzen amaitzea, salaturiko errealitatea nolabaiteko *déjà vu* bihurtu balitz bezala, gure jarduerak edo pentsamoldeak eraldatzeko inolako eraginik ez duena. Horren ondorioz baliteke, datu hauen aurrean, guztiok gure betiko inertzietara jotzea, eta horrexetan datza, nire ustez, saihestu beharreko arriskua: etsipenez zein zinismoz, bakoitza bere koherentzia txokoan eroso sentitzen bukatzea, dela sistemaren kudeaketa burokratikoan arduratuz, dela alternatibarik gabeko kritika antzuan arituz. Bien bitartean, espetxeak jarraituko du presoak bertaraino eraman dituzten arazoak kroniko bihurtzen, eta hamar urte barru harriduraren plantak egingo ditugu guztiok, gauzak zer gutxi aldatu diren ikustean.

Baina ez da egia. Ozenki esan beharra dago badagoela zer egiterik, eta konponbidea erraza ez bada ere –ez honetan ezta inon ere gure gizartearen egiturazko bidegabekeriak sorturiko arazoan- tinko eutsi behar diogula zeregin bikoitz bati: dagoena ikertu eta salatzeari, alde batetik; bestetik, irtenbideak proposatzeari, bai aukerabide berriak asmatuz, baita ere dagoeneko legean eskuragarri ditugun –eta praktikan erabiltzen ez diren- neurriak ahalbideratuz. Bietan arituko naiz jarraian.

### **Egoeraren hainbat faktore eragile**

Puntu hau hasteko, lehen aipatu dudan 1996 urteko txosten berezian jasotako gomendio orokorretariko bat mahaigaineratu nahi dut. Bertan

adierazitakoaren arabera, beharrezkoa da *“zigor zehapenen oraingo sistemari eta horrek izan ditzakeen aukerei buruzko gizarte eztabaida eta informazioa sustatzea”*. Gure ustez, gomendio hori oraindik ere indarrean dago.

Orduan esan genuenaren arabera, arazo askoren eragile nagusia espetxe erakundearen isolamendua da, baita gizartearen ezagupenik eza ere, askatasun-gabetzeko zigorra betetzearen baldintzei dagokienez. Alderdi horri dagokionez, egoerak ez du hobera egin. Egia da azken aldi honetan sarritan agertu direla komunikabideetan EAEko espetxeak, baina hori, batik bat, horien barruko gertaera negargarrien eraginez izan da. Jakina, Langraiz Okako espetxean berezkoak ez diren heriotzen (gehienbat, suizidioak) kopuruak izandako gorakada handiak kezka eragin du gizartean; hala eta guztiz ere, orokorrean, gertaerak “albiste” izateari utzi dionean, jendearen arreta galdu egin da. Presoekin lan egiten duten eta euren arazoak ondo ezagutzen dituzten pertsonak eta taldeek behin eta berriro aldarrikapen larria egin arren, ez da hausnarketarik egin espetxeetan sortzen diren gatazken ondorioei buruz.

Gure espetxeetako egoeran eragina duen beste faktore bat politika kriminala da. Espainiak duen preso kopuruak ea % 100ean egin du gora azken 16 urteotan, alegia, Europar Batasuneko gorakadarik handiena; Europaren buruan gaude, halaber, gure espetxeratze kopuruari dagokionez: 100.000 biztanleko 144 presorekin, Ingalaterra eta Gales ere gainditzera iritsi berri gara.

Hazkunde hori, ostera, ez da delitugintzaren hazkundearen ondoriozkoa, legezko erreforma azkarren ondoriozkoa baizik. Erreforma horiek, berriro esan beharra dago, ageriko beharrizanik eta oinarri teorikorik gabekoak dira, eta ez dago azterketarik politika kriminal horren eraginkortasunari buruz. Eta euren erabilgarritasuna alde batera utzita, zuzenbide penal demokratikoaren oinarrizko printzipioen ikuspegitik ere dira kritikatzekoak azken hamar urteotan indarrean sartu diren zigor-neurri berriok.

Halaber, beste alderdi batzuk ere ezin dira ahaztu, esate baterako, berrerortzeari eta delinkuentzia txikiari ezarritako zigorrak izandako gogortze larria, espetxe zigor laburren berrezarkuntza edo inmigrazioari emandako zigor erantzuna. Espetxeetako oraingo egoera, oro har, eta bereziki presoek itxaropen galera eta espetxeetako profesional askoren motibaziorik eza, gure ustez, legezko erreforma horietan oinarritzen dira.

## **Euskal erakundeek ardura**

Askatasun-gabetzea ahalik eta gehien murrizteko azken helburua ahaztu barik, EAEko administrazioek pertsona horien bizi-baldintzak hobetzeko egin ditzaketen jarduketaz hitz egin beharra dago ere.

Horri dagokionez, lehenengo eta behin esan behar da komenigarria dela ahalik eta lasterren espetxearen arloko eskumena osatzen duten funtzioen transferentzia egitea. Jakina denez, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuak ezartzen duenez, Autonomia Erkidegoak eskumen soila dauka *“espetxe eta gizarteratze erakundeek eta establezimenduen (...) antolamenduan, araubidean eta funtzionamenduan”*. Hala eta guztiz ere, oraindik ez da bidezko funtzioen transferentzia egin. Arartekoak Eusko Legebiltzarrari 1996tik hona zuzendutako urteroko txosten bakoitzean, horrela adierazi da; gainera, aditzera eman da beharrezkoa dela inplikaturiko bi alderdiek ahalegina egitea, arlo honen inguruko akordioak lortzeko, presoek –eta gizarte osoaren– interesak interes politikoen aurretik jarri.

Jakina, Arartekoak ez du uste autogobernua panazea denik askatasun-gabetzeko zigorrak betearaztearen arloan, eta berez ez dakar presoek egoeraren hobekuntzarik. Hala eta guztiz ere, kudeaketa hurbilagotik egitea lagungarria izan daiteke instalazioak modernatzeko, eta, batik bat, ezinbestekoak dira koordinazio handiagoa eta espetxe zerbitzu desberdinak (hezkuntza, gizarte laguntza, etab.) sare komunitarioan sartzeko. Nolanahi ere, agerikoa da askatasun-gabetzeko

zigorren helburua presoak gizarteratzea izateak botere publiko guztiak inplikatzeko dituela. Horrenbestez, oraingo egoeran ere, EAEko administrazioek esku hartu behar dute, gure lurraldeko espetxeetan zigorra betetzen ari direnen edo bete dutenen arazoak eta gabeziak arintzeko, pertsona horiek ahultasun handiko egoeran eta gizarteratze arazo handiekin baitaude.

Betebehar orokor horrekin batera, espetxeen arloko lankidetzaren hitzarmenetan jasotako betebeharrak daude, eta hitzarmen horiek 1994an eta 1996an sinatu zituzten Estatuko administrazioak eta EAEko administrazioak. Hitzarmen horien ahalmenak oinarrizko alderdiei buruzkoak baziren ere (adibidez, presoaren osasuna, hezkuntza, lana edo gizarteratzea) ez dira behar bezala garatu. Izan ere, azken urteotan, lankidetzako tresna horiek ez dira erabili. Egia da azken urte honetan egoera hori aldatzen ari dela, baita ere EAEko administrazioetatik, modu eta intentsitate desberdinekin, arreta eskaintzen ari zaiela espetxean dauden edo egon diren pertsonen. Geure iritziz, bide horretatik jarraitu behar da eta, ahal den neurrian behintzat, laguntza hori oraindik ere handiagoa izan behar da.

### **Espetxeetako baldintza fisikoak**

EAEko espetxeetara 2005ean egin genituen bisitaldietatik ondorioztatzen denez, oinarrizko baldintza orokorrak, funtsean, 1996an ikusitako antzekoak ziren. Hemen ez dut espetxeen deskribapen osoa egin nahi, ezta horien gabezia nagusien deskribapena ere, baina gure arreta erakarri zuten instalazioetako alderdi batzuk aipatuko dizkizuet:

a) **Langraiz Oka:** Espetxea oso zaharra izan ez arren (oraingo egitura 1981ekoa da), bertako arazo nagusiak eraikuntzan erabilitako materialen kalitate txarraren eraginezkoak dira. Estalkien egoera txarraren ondorioz, itogin asko dago. Akats hori urte batzuetatik honakoa da, baina oraingoz ordezkaren lehenengo fasea baino ez zuten egin, eta beste bi faseak betearazi barik zeuden; berokuntza sistemarekin, emakumeen dutxeekin eta abarrekin ere gauza bera gertatzen zen.

Bertako arduradunek diotenez, espetxea mantentzeko eta hobetzeko obrak etengabeak dira. Kasu batzuetan nabaritu egiten ziren. Hala eta guztiz ere, agerikoa da instalazioen narriadura orokorra, eta, gainera, modulu batzuetako presoak balio anitzeko modulu komun batzuetan pilatuta egoteak larriagotu egiten du arazoa. Toki askotan, lurzorua eta, batik bat, leihoak oso egoera txarrean daude. Kasu batzuetan, kristalen ordeztu plastikozko plakak jarri ziren, eta horiek, erabilerarekin arraiak dituztenez, egoera negargarrian zeuden (handik gutxira, zuzendaria geroago jakinarazi zigunez, neurriak hartu ziren arazo zehatz hau konpontzeko). Oro har, espetxeko altzariak oso narriaturik daude eta ordeztu egin beharko lirateke. “Erizaintza” deritzon moduluari dagokionez (bisitaldia egin genuenean ez zegoen sendagilerik), taldeko ziega batzuk berri eta deigailuak instalatu dira; hala ere, ez da bere helburua betetzeko leku egokia, eta gainera, bertan gaixotasun desberdinak dituzten eta arreta berezirik jasotzen ez duten personak batera bizitzearen ondoriozko arazoak larriak dira.

Amaitzeko, aipatu beharra dago 5. moduluaren egoera; hori isolamendukoa dela esan daiteke, nahiz eta gauza askotarako erabili: sartzea, aldi baterako presoak, lehenengo graduko presoak eta murriztapen neurriak dituztenak, etab. Dirudenez, bertako egoerak hobera egin du apur bat, baina itxura negargarria zeukan (zikintasuna, aparrezko koltxoak apurtuta eta zorririk gabe,...).

Jakina denez, gure bisitaldi hau burutu eta gero preso batzuek beren buruaz beste egin zuten eta, hortik sortutako zalapartari ezin eutsiz, Espetxeetako Zuzendaritza Orokorrak ontzat eman zuen aspalditik begi bistakoa zena: espetxe hau itxi behar dela. Honek, jakina, beste eztabaida bat zabaltzen du: zer nolako zentroa eraiki bere ordeztu, eta batez ere zer ereduaren alde egiten den apustu. Zinez espero dut ekarpen honekin, baita gainerako beste parte hartzaileek egiten dituztenekin, eztabaida horretarako irizpideak finkatu ahal izango ditugula.

b) **Basauri:** Berrogeita hamarreko hamarkadaren amaieran eraikita egotearen ondorioz, eraginezko egitura mailako gabeziak nabariak dira; hala ere, espetxe

honek itxura orokor nahiko onargarria dauka; fatxadak eta barruko gelak oraintsu pintatu dira eta hori lagungarria izan da espetxeari itxura onargarri hori emateko.

Espetxe txikia da, eta bertako arazo nagusienetarikoa, hain zuzen ere, leku nahikorik ez egotea da: ziega batzuk txikiegiak dira okupatzaile kopurua kontuan hartuta; kirol, hezkuntza nahiz produkzio jardueretarako leku gutxi dago; gela nagusiko jantokia txikiegia da. Gabezia horren ondorio txar nagusienetarikoa, izan ere, presoak ondo sailkatu eta bereizi ezin izatea da.

Garbitasuna, orokorrean, onargarria da, baina erabilera komuneko zona batzuetan (adibidez, eskaileretan eta, batik bat, patioan) zikinkeria ikusten da.

c) **Martutene:** Berrogeiko hamarkadan eraikitako espetxe hauxe da hiruren artekorik zaharrena, eta hori agerian gelditzen da bai egituran eta bai instalazioetako narriadura larrian. 1996an, Espetxe Erakundearen Zuzendari Nagusiak esan zuen EAeko hiru espetxeak zentro "amortizagarriak" zirela eta beste batzuekin ordeztu behar zirela, baina hori argiago ikusten da Martutenen. Izan ere, eraikin osoak dituen hezetasun arazo larriekin batera, ur hodian, elektrizitatearen eta berokuntzaren instalazio osoa egoera txarrean zegoela ikusi genuen.

Espetxearen itxura hobetzeko esfortzu handia egin da eta hori agerian dago (barruko zonak pintatu eta espetxeko lantegi batean egindako apaingarriak jarri dira, eta familien bisitaldietarako gela ere berritu egin da); hala ere, patioen eta kanpoko elementuen egoera (hormak, estalkiak, erretenak, etab.) negargarria da. Zona eta gela batzuen garbiketa ere ez da ona (esate baterako, sukaldea), eta altzaririk gehienak zaharrak dira eta kontserbazio egoera txarrean daude.

## **Sistemaren gabezia nagusiak**

Urtean zehar, espetxeetako arduradun desberdinekin bilerak egiten ahalegintzen gara, baita presoek gizarteratzearen arloan diharduten elkarteekin ere. Bestalde, guregana jotzen duten presoek euren arazo partikularrak azaldu ohi dituzten arren, badaude behin eta berriz agertzen diren keza orokor batzuk. Bide huetatik jaso dugun informazio guztia haintzat hartuta, honako hauek izango ziren, gure ustez, gure gaurko espetxe-sisteman nabaritzen diren alderdirik kezkagarrienak:

- Sistemaren lehentasuna, espetxe-tratamenduaren gainean. Baliabiderik gehienak (giza baliabideak eta baliabide materialak) zaintzari loturiko alderdietan erabiltzen dira, eta ez da gizarteratzea eta laneratzea prestatzeko lan nahikorik egiten, presoak kanporatzen direnerako. Okupazio eta heziketa jarduera asko funtzionario batzuen esfortzu pertsonalari esker egiten dira, eta erakundeek ez dituzte bultzatzen legez jaso beharko lituzketen laguntzak.
- Ez da banakako tratamendua aplikatzen, alegia, presoaren bilakaera pertsonalean oinarrituriko tratamendua. Tratamendu taldeko profesionalak gainezka daude, eta beraz, ez dituzte presoek egoera pertsonalak behar bezala ezagutzen. Horren ondorioz, baimenak arrazoi orokorren eraginez ematen edo ukatzen dira (zigorraren larritasuna...), eta ez banakako ezaugarrien eraginez. Gainera, baimenak ematea edo ukatzearen ahalmena, kasu gehienetan, barruko jokaera kontrolatzeko baliabide konduktista legez erabiltzen da, eta hortaz baimenak galtzen du legeak ezartzen dion helburua, alegia, askatasunean izango duen bizitzarako prestatzeko tresna izatea. Ildo berean, drogomenpekotasunaz askatzeko prozesuetan, kontsumoa "ez-betetzetat" hartzen da, nahiz eta ikuspegi terapeutikotik begiratuta hori ez den zertan beti horrela baloratu behar.
- Espetxeetako preso kopuru handiegia: bisitaldia egin genuenean, Basaurin 277 preso zeuden, Martutenen 295 eta Langraizen 696; hala eta guztiz ere,



bisitaldiaren aurreko hilera arte, azken espetxe horretan 770 preso zeuden. Arazo hau, esan bezala, ohikoa da Espainiako estatuko espetxe guztietan, baina oso larria da espetxe zaharretan eta egiturazko akatsak dituzten espetxeetan, EAEkoetan gertatzen den legez. Preso mota desberdinen arteko banaketarik eza, banakako tratamendua emateko ezintasuna (espetxeei buruzko legeak dioenez), presoek pilaketa, intimitaterik eza, gatazkak eta bizikidetzaren arazoak: horiek dira espetxeetako preso kopuru handiegia eraginezko ondorio kezkarrietariko batzuk.

- Espetxeetako funtzionarioen lanaren baldintzak oso gogorrak dira. Mehatxu terroristaren eragina martxotik hona arindu bada ere, espetxeetako egitura-gabeziak eta lekurik eza ezin dira ahaztu. Funtzionarioen artean motibazioa eza handia da, baita barne komunikazio eza handia ere, eta horrek gogo barik uzten ditu proposamenak edo kritikak egiteko prest dauden bokazio-langileen asmo ona.

- Hezitzaileen eginkizuna nabarmentzen da, baina honi buruzko iritziak era askotakoak dira. Preso eta elkarte batzuen ustez, zerbait egiten duten bakarrak dira, tratamenduko gainerako profesionalak lan burokratikoak baino egiten ez dituztelako; beste zenbaiten iritziz, ostera, hezitzaileak ez dira moduluetara joaten eta ez dute presoekin hitzik egiten. Funtzionario horien heziketa espezializatuari dagokionez, badirudi hori ezinbestekoa dela, baina praktikan prestakuntzarik gabeko pertsonak ere sartzen dira lanpostu horretan, eta horien helburu bakarra euren lan baldintzak hobetzea da.

- Suizidioak: ez dago erreakzio eraginkorrik. Indarrean jarritako egitasmoak gora – behera, loturarik eta jarraitasunik gabeko neurriak hartzen dira; horiek, batzuetan, boluntarismo hutsean oinarriturik daude, esaterako, “laguntzeko presoek” programa. Ez dago beharrezko aurrekontu baliabiderik, jarduera terapeutikoak edo tratamendukoak mantentzeko, ezta ere beharizan bereziei erantzun egokia emateko (buruko gaixotasuna duten presoentzako edo toxikomanoentzako zentroak...).

- Espetxeko gizarte zerbitzuen eta komunitateko zerbitzuen arteko erabateko koordinazio eza, eta horrek gizarteratze prozesua zailtzen du. Beste arlo batzuetan ere (osasuna, lanbide heziketa...) ez dago baliabideen sare publikoarekiko koordinazio nahikorik.

- Langraizeko sail irekia: espetxe barrutitik kanpo egon beharko litzateke. Gaur egun, hirugarren graduako presoak, asteburuetan baino kanporatzen ez direnak, egoera txarrean bizi dira bertan, tratamenduko profesionalen inolako laguntza barik, gizarte langileen bisitaldiren baten kasuan izan ezik. Kontuan hartu behar da eguneroko irteera ahalbidetzeko jardueraren bat aurkitzeko gauza ez diren presoek dutela defentsarik txikiena, eta beraz, horietan behar dute laguntzarik handiena, askatasuna prestatzeko funtsezko une horretan.

- Osasunerako onartezinak eta kaltegarriak diren bizi-baldintzak, batez ere, organismoaren barruko defentsak murrizteko patologia dituzten preso ugarietara dagokienez. Hezetasuna, hotza, berokuntzarik eza, arropa berorik eza eta halako kexak sarritan agertzen zaizkigu. Egoera oso gogorra da modulu eta departamentu batzuetan; horietan, gainera, beste akats batzuk daude: presoek pilaketa, erabilera komuneko lekurik eza, altzari egokirik eza, zikinkeria, arratoien eta intsektuen ugartasuna.... Honek guztiak, esan beharrik ez dago, barruko giroa usteltzen du eta jendearen arteko erasokortasuna errezten du.

- Buruko gaixotasunaren prebalentzia handia presoek artean: Langraizen, esaterako, preso guztien % 40 inguruk (300 preso, gutxi gorabehera) medikazio psikiatrikoa hartzen dute, eta % 10ek patologia oso larriak dituzte. Hiru espetxeetara Osakidetzako adituak joaten dira (maiztasun desberdinarekin), baina laguntza psikiatrikoa ez da nahikoa, kontuan hartuta espetxeetako giroa oso kaltegarria dela halako gaixotasunetarako. Buruko gaixotasunak ez ezik, nortasunaren nahaste larriak ere badira, baita toxikomanien eraginezko aldaketa psikologikoak ere, eta horrela, egoera konponezinak sortzen dira. Arazoa oraindik

ere larriagoa da, zigorra betetzeko bide alternatiboa edo baldintzapeko askatasuna ahalbidetzen duen espetxetik kanpoko baliabiderik ez dagoelako. Horri lotuta, aipagarria da sendagaietan dagoen gastu itzela, bertako terapia erabilgarri bakarra kimika baita.

- Generoko biolentziaren ondoriozko presoak: hiru espetxeetan, emakumeen aurkako biolentzia delituengatik presoen fenomeno sorberria da eta konponbide zaila dauka. Ezaugarri bereziko taldea da, eta, antza denez, euren artean suizidio arriskua gainerako presoen artean baino handiagoa da. Espetxeko langileen ustez, hori gizartean nabaritzen duten gaitzespenaren ondorioa da; hala ere, gure iritzian, beste zergati batzuk ere badira; esate baterako, erasotzaile hauetako batzuek euren burua “delitugiletzat” ez hartzea, uste baitute beren jarrera zilegia dela, alegia gizarte pentsamolde matxistak oraintsu arte ontzat eman dituen jokabideekin bat egin dutela, eta, ondorioz jasotako zigorra bidegabea dela.

- Emakumeak: Langraizen eta Martutenen emakumeek okupatzen dituzten egoitzak egoera txarrean daude. Lan eta heziketa jarduerak egiteko aukera gutxiago dago, eta euren beharrian berezien erabateko arreta eza (oinarrizko heziketan gabezia larriak dituen taldea da , eta gainera, laneratzeko arazo gehiago dute). Ez dago Amen Unitaterik. Euren ezaugarrietarako egokiak ez diren segurtasun neurriak eta murriztapenak aplikatzen zaizkie (esaterako, adin txikiko seme-alabekiko telefono komunikazioetan ezarritako mugak), eta batzuetan, horiek gizonentzat baino zorrotzagoak dira.

- Etorrinak: arazo bereziak eta diskriminazioak jasaten dituzte (baimenak, baldintzako askatasunaren ukapena...). Arbitrariotasuna eta erabateko informazio eza, kanporatzeko prozedurei dagokienez. Espetxe Administrazioak ezetz esan arren, hizkuntza ez jakitearen eraginezko arazoak daude: ulermenaren itxurazko maila benetakoa baino askoz ere altuagoa da. Diskriminazioa: batzuek Gizarte Segurantzari kotizatu arren (espetxean lan egiten duten bitartean), gero ezin dute prestaziorik edo sorospenik kobratu.

- Lan eta heziketa jarduerak: Basaurin eta, batik bat, Martutenen, ordaindutako lan eskaintza oso urria da. Produkzio jardueraren urritasuna eta lantegietarako lekurik ez edukitzearen eraginez, lanaren zati handi bat zerbitzu komunetan egiten da (mantenamendua, sukaldea, garbitegia...). Lantegi batzuk egon arren (industria pintura, zurgintza, etab.), horiek ez dira inondik inora ere nahiko, eta gainera, ez dago loturarik EAEko hezkuntza sistemarekin.

### **Ekintzarako proposamenak**

Nabaria denez, orain arte egin den diagnostiko beretik ondorioztatzen da zer baliabide material behar diren arazo hauei guztiei neurriren batean aurre egin ahal izateko. Baina egoera hau, funtsean, ez da bakarrik aurrekontuetako lehentasunen aldaketa batekin eraldatzen.

Politika kriminaleko erabakiak hartu behar dira, alde batetik. Lehen esan dudanez, preso kopuruaren gorakada, Espainiako espetxe sistema gainezka utzi duena, ez da kriminaltasunaren benetako gorakadaren ondoriozkoa, zigor erreakzioa gogortzearen ondoriozkoa baizik. Prebentzio-espetxealdian dauden pertsonekin ez ezik, espetxeak jabetzaren aurkako delitu txikiak egin dituzten pertsonen beteta daude, batez ere, estupefazianteen trafikoari loturiko delituak egiteagatik. Kasu ia guztietan, askatasunaz gabetzen ez duten zigorrak ezartzea nahikoa izango litzateke (prebentzio eta gizarteratze eraginkortasun handiagokak, espetxe-zigorrak baino), baina orain arteko aukera nagusia askatasunaz gabetzea da, eta horixe da gure zigor sistemak ematen duen erantzun ia bakarra.

Berrikusi beharreko neurriak ez dagozkio Kode Penalari bakarrik, baita ere bertan agertzen diren zigorren egikaritze arautzen duen legeriari. Arartekoaren ustez, espetxeetako arazo askoren jatorria zigorrak betearazteko bideak gero eta zorrotzagoak izatean datza. Espetxetik irteteko baimenak lortu edo hirugarren gradua eskuratu ahal izateko igaro behar izan den segurtasun-aldia, edota

baldintzapeko askatasuna lortu ahal izateko ipintzen diren baldintzak oztopo gaindiezina bilakatzen dira, kasu askotan, askatasun mugatuko egoerak eskuratzeko orduan. Honek guztiak deseginda uzten du, gure ustez, Espetxeari buruzko Lege Orokorrak ezarritako indibidualizazio zientifikoaren sistema, presoek itxaropena galtzen dute, eta horrek larriagotu egiten ditu espetxe barruko tentsioak, bizikidetzaren narriatu eta gatazkak areagotzen ditu.

Horri dagokionez, botere publikoek ebaluatu eta zuzendu egin behar dituzte iraganeko harturiko erabakiak. Baina, aldi berean, herritarrei informazioa eman behar zaie askatasun-gabetzearen eraginezko kalteei eta arazoei buruz, baita horrek dakarren zama ekonomikoaz ere eta, batik bat, delituen prebentzioan duen eraginkortasun urriaz. Azken batean, zigor sistemaren benetako funtzionamenduaren gaineko hausnarketa sustatu behar da.

Jendeari espetxearen inguruan informazio egokia eta osoa eman behar izatearekin lotuta, askatasun-gabetzearekiko aukerako zigorrak egoteari buruzko informazioa ere plazaratu behar da, horiek aplikatzeko komenigarritasuna azalduz eta gizarte talde guztien inplikazioa ahalbideratuz. Horixe baita espetxearen gizarte kostua ekiditeko modu bakarra. Alde horretatik, 1999ko urteko txostenean jasotako gomendio orokor batean, Arartekoak EAEko administrazioei, bereziki Eusko Jaurlaritzari, hitzarmenak sinatzeko eta sustatzeko eskabidea egin zien, Gizartearen Aldeko Lanak ahalbideratzeko, epaileek kode penalak eskainitako zigor hau ezarri ahal dezaten. Hala ere, Arartekoak argitaratu berri duen ikerketa batean agerian gelditu denez, ez dira hartu horren aplikazioa benetako eta eraginkorra izateko ezinbestekoak ziren neurriak. Egia da epaitegiek murriztu egiten dutela halako zigorren ezartzea, baina ezartzen direnean ere, sarritan ez dira betearazten lanpostu egokirik ez egotearen ondorioz.

Gabezia horien erantzukizun nagusia Estatuko administrazioak dauka, hain zuzen ere, Espetxe Erakundeetako Zuzendaritza Nagusiak, erakunde horrexek baitauka eratzikita zigorraren betearazpena. Hala eta guztiz ere, argi dago

askatasunaz gabetzeko zigorrak gizarteratzeko baliabideak izateko, herri botere guztien lankidetzara behar dela. Horri dagokionez, gogoratu egin behar da 1996ko txosten monografikoan Arartekoak egindako gomendioa: espetxeak gizartera ireki behar dira, eta horretarako, herri zerbitzu komunitarioekin integratu edo, behintzat, koordinatu behar dira.

EAEko Administrazioei dagokienez, ahalegina egin beharko lukete bere eskumeneko zerbitzuetan aurkituriko gabeziak konpontzeko (presoen lekualdaketak, Zaintza Bereziko Unitateen zaintza ospitaleetan, etab.). Halaber, arlo batzuetako lankidetzara areagotu egin behar da, batez ere, adituen edo ospitaleen osasun laguntza, drogamenpekotasunerako laguntza eta hezkuntza laguntza, azken arlo horretan espetxe irakasleen integrazioa oraindik ere egin barik baitago. Baina, EAEko administrazioen erantzukizuna haratago doa. Baliabideak egituratu beharko lituzkete espetxean sartzea ekiditeko edo errazago irteteko. Delituen prebentzioan eragina duten gizarte politikak garatu ezezik, buruko gaixotasunak edo gaixotasun larriak dituzten pertsonentzako zentro bereziak ere sortu behar dira, erregimen irekiko unitateak, toxikomanien tratamendurako edo osaketarako zentroak, espetxetik irteteko unerako dirulaguntzak, laneratzeko neurri bereziak, etab.

Espetxea azken aukera izan dadineko borondatea berrestea ez da nahikoa; aukerak, neurriak eta irtenbideak sortu behar dira, batetik, askatasun-gabetzearen eremua murrizteko. Eta bestetik, legean indarrean dagoena errealitatearen mailan gauzatzeko adorea eta kemena behar da. Zigorraren egikaritzaren ibilbidean parte hartzen dugun eragile guztioi dagokigu zeregin hau, bai eta gizarte osoari ere, horren pentsamoldea eta jarrera erabakiorrak izango baitira arduradun politikoek zein bide eta zein eredu erabili erabakitzeko orduan. Guztiona izango da, beraz, hamar urte barru izango dugun egoeraren erantzukizuna.

